

Otsailaren 28an GARIZUMAKO 2. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako bigarren urrats honetan Kristoren piztuerari begira jartzen gara. Jesusek nekaldi-bidea igaro behar izan zuen horretara iristeko.

Jesusi jarraitu nahi diogunok, Aitarekin bat egitetik datorren antzaldatzea behar dugu, gudan piztueraren indarra nagusitzen dela antzeman dakigun.

Eukaristia dugu horren iturri. Ospa dezagun fedez.

Damu-otoitza

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damaturik bekatuen barkamena eskatuz:

—Jesus Jauna, gure erruak gar**bit**zen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gudan bihotz gar**bia** sortzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro em**at**en diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren asmoak, ulertzen zailak dira askotan. Fedez jokatura ordea, bedeinkapena eta ugaritasuna da Jainkoagandik jasotzen duguna. Hau barneratzeko eta ulertzeko ezin mendian ezkutatu, baizik eta egunerokotasunean saiatu behar dugu Jainkoa aurkitzen.

Lehenengo irakurgaia (*Has 22, 1-2. 9a. 10-13. 15-18*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaac zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskainiezadazu erreopari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

Aita-semeak Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu. Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek bere semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparitzat eskaini zuen semearen ordez.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengoan bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

Erantzun-salmoa (Sal/ 116 [115], 10 eta 15. 16-17. 18-19)

I - bi - li - ko naiz zu - re au - rre - an, bi - zi di - re -
 nen lur za - ba - le - an.

Sendo nengoen **fedean**,
 «Ni bai zoritxarreko» esate**an** ere.
 Mingarri zaio Jaunari
 bere fededunen heriotza. R/.

Bai, zure zerbitzari naiz, Jauna, '
 zure zerbitzari **eze**reza,
 askatu dituzu nire **kate**ak.
 Gorespen-oparia dizut esk**ai**niko
 eta Jaunaren izenari dei **e**gingo. R/.



Beteko dizkiot Jaunari **promesak**,
herri guztiaren **aurrean**,
Jaunaren etxeko **atarian**,
Jerusalem, zure **erdian**. R/.

Bigarren irakurgaia (Erm 8, 31b-34)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Jaungoikoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohainik emango?

Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskuinaldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Lk 9, 35)



Ain - tza Je - sus, Zu - ri be - ti, Zu za - ra gu - re ar - gi.



Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa **entzun** zen:
Hauxe da nire Seme maitea. Entzu**io**zue.

Ebanjelioa (Mk 9, 2-9)

Homiliarako argibideak

Entzuiozue!

«Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Hitz horiekin, Jainko Aitak Jesukristori ematen zion gizateria bere Maisu bakar eta behin betikotzat, Legeen eta profeten gainetik.

Non hitz egiten du Jesusek gaur, entzun ahal izateko? Batez ere gure kontzientziaren bidez hitz egiten digu. Bera Jainkoaren ahotsaren «errepikagailu» moduko bat da, gure barruan kokatua. Baina bera bakarrik ez da nahikoa. Entzutea gustatzen zaiguna esanaraztea erraza da. Horregatik, Ebanjelioak eta Elizaren irakaskuntzak argiztatu eta bermatu behar dute. Ebanjelioa da Jesusek gaur hitz egiten digun modu nagusia. Baina esperientziaz badakigu Ebanjelioaren hitzak ere modu desberdinetan interpreta daitezkeela. Benetako interpretazioa ziurtatzen diguna Eliza da, Kristok horretarako sortua: «Zuei entzuten dizuenak, niri entzuten dit» (*Lk* 10, 16). Horregatik, garrantzitsua da Elizaren irakaspene ezagutzea, lehen eskutik ezagutzea, Elizak berak ulertzen eta proposatzen duen bezala, ez komunikabideen interpretazioan — askotan desitxuratua eta mugatua—.

Oso garrantzitsua da gaur egun Jesusek non hitz egiten duen jakitea. Berak ez du hitz egiten magoen, igarleen, horoskopohizlarien, mezu estralurtarren bidez; ez du hitz egiten espiritismo-saioetan, ezkutuan. Liburu Santuan, ohar hau irakurriko dugu: «ez beza zuetako inork semea nahiz alaba oparizat erre; ez bedi izan zuen artean geroa igartzeko magiazko baliabide, sorginkeria nahiz aztikeriarik erabiliko duenik, ez liluratzailerik, ezta espirituei edo hildakoei deika dabilkeenik ere. Horrelakoak egiten dituen oro higuigarri zaio Jaunari» (*Dt* 18, 10-12).

Horiek ziren paganoek jainkozko gauzez hitz egiteko zituzten moduak, astroak, animalien erraiak edo hegaztien hegalkina

konsultatuz ateratzen zituztenak. Jainkoak Jesusi buruz «Entzun!» esatearekin guztia amaitu zen. Bitartekari bakarra dago Jainkoaren eta gizakien artean; ez gaude beharturik «itsumustuka» ibiltzera, Jainkoaren nahia ezagutzeko, hau edo hura konsultatuzera. Erantzun osoa Kristogan dugu.

Zoritxarrez, gaur egun erritu pagano haiek modan daude berriro. Beti bezala, benetako fedea gutxitzen denean, superstizioa handitzen da: horoskopoa adibidez. Esan daiteke ez dagoela egunkaririk edo irratirik beren irakurleei edo entzuleei horoskopoa egunero eskaintzen ez dienik. Pertsona helduentzat, gaitasun kritiko edo ironiaz gutxienean jantziak daudenentzat, adarjotze, jolas eta denbora-pasa moduko bat izan daiteke. Baina bitartean, begira ditzagun efektuak epe luzera. Zer pentsaera sortzen da, batez ere gazte eta nerabeengan? Haren arabera, bizitzako arrakasta ez da ahaleginaren, lanean saiatzearen eta jarraitutasunaren araberakoa, baizik eta kanpoko faktoreen araberakoa, faktore eztabaidaezinak; berezko edo kanpoko zenbait botere bereganatuz lortzen dena. Are okerragoa: horrek guztiak pentsarazten du, ongian eta gaizkian, erantzukizuna ez dela gurea, «izarrena» baizik.

San Joan Gurutzekoak zioen, Taborren Aitak «Entzun!» esan zuenetik, Jainkoa, nolabait, mutu bihurtu zela. Dena esan du; ez du gauza berririk esateko. Errebelazio edo erantzun berriak eskatzen dizkietenek iraindu egiten dute, dagoeneko nahiko argi azaldu ez balitz bezala. Jainkoak hitz bera esaten digu: «Entzun berari!, irakurri Ebanjelioa: hor aurkituko duzue bilatzen duzuen».

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok gure egintzen epaile den Aita errukitsuari eta gure bihotzen ezkutukoena ezagutzen dituen Jainkoari eta damu-espirituz eska diezaiogun entzun dezala bere herriaren otoitza:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son!

- Jainkoak eman diezaien bere senideei Garizumako egun hauek egiazko penitentzi jarreraz bizitzea eta barkamenaren sakramentua oparo ospatzeko prestatzea. Egigun otoitz. R/.
 - Onbidetik urrundu eta bekatuagatik hil direnek Jainkoaren Semearen ahotsa Garizumaldi honetan entzunik bizi daitezen. Egigun otoitz. R/.
 - Ondasunak dituztenei, Jainkoak eskuzabaltasun jarrera eman diezaien eta lurreko ondasunak denon onerako ugari ditzan. Egigun otoitz. R/.
 - Garizumako penitentzialdiak ondasunekiko gure gehiegizko jarrera zuzen dezan eta gure espirtua sendotuz betirako diren ondasunetara begira jar gaitzan. Egigun otoitz. R/.
- Zure Semea bekatarion esku utzi zenuen Jainko Aita guztiz santua, entzun gure otoitzak eta sendo gaitzazu fedearikiko leialtasunean, Jesu Kristoren urratsei jarraituz Berarekin antzaldatuak izan gaitezen aintzazko argitan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako II. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 168. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Misterio aintzagarriak hartu ditugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela ere
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinkatu, Jauna, etengabe zeure fededunak
betiereko bedeinkapenez, eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari atxikirik bizi daitezela,
hark Apostoluei erakutsi zien aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskura dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).